

Pikas-en metodoa

Ezagutza partekatuko metodoa

Sarrera

Anatol Pikas, Upssalako Unibertsitateko hezkuntza departamentuko psikologo suediarrek garatu zuen metodoa da, 1989an. Bristol (Ingalaterra) bullying-ean parte hartzen duten neska-mutilekin lan egiteko, No blame approach izeneko antzeko beste metodo bat garatu zuten Barbara Maines-ek eta George Robinson-ek, 1992an.

Pikas-en metodoa sortu den bullying-egoera bati aurre egiteko hirugarren mailako esku-hartze metodoa da, neska-mutil talde batek hainbat denboraz beste neska edo mutilen bat, edo gehiago, erasotzen dituen egoeretan lantzeko bereziki aproposa.

Helburua

Metodoaren asmoa taldeko kideak, banan-banan, partaide diren egoera horretaz ohartzea da. Hartarako, kide bakoitzarekin banan-banako elkarrizketak egingo dira parte hartzen ari diren egoera horretan duten mehatxu-portaerari buruzko beldurrak eta erreparak ager ditzaten.

Metodoaren azken aldean bilera bateratua egingo da; horretan, erasotzaileek eta biktimak liskar-jarrerak alde batera uzteko konpromisoa hartuko dute.

Adina

Metodoa ezartzeko adin egokia bederatzia eta hamasei urte bitartekoa da.

Hasierako ikuspuntua

Hainbat hipotesitan oinarritzen da metodo honen ikuspuntua:

- Taldeak elementu psikologiko bateratzailea du jarduten duenean.
- Taldearen pentsamendu eta sentimendu horiek kide bakoitzak bere aldetik dituenak baino soilagoak dira.
- Taldeko kide bakoitzak, banaka, elementu psikologiko bateratzaile horri beldur dio.

Aipatu elementuak banakoa presionatzen du taldeko gainontzekoek egiten dutenarekin ados ager dadin. "Kutsapen soziala" (Olweus, 1998) deritzana gertatzen da. Errua edo ardura lausotu egiten da, eta, halaber, taldeak esaten duena egiten ez bada, biktima bihurtzeko beldurra izaten da.

Etapak

Pikasek (1989) hiru etapa aipatzen ditu:

- ETAPA: Egoera horretan dagoen taldeko kide bakoitzarekin banan-banako elkarrizketak (7-10 minutu pertsona bakoitzeko). Elkarrizketatutako lehenengoa taldearen liderra izango da, eta ondoren gainontzeko erasotzaileak. Azkena biktima izango da.
- ETAPA: Jarraipena egiteko elkarrizketa neska-mutil bakoitzarekin (3 minutu inguru).
- ETAPA: Talde osoarekin (ordu erdia).

Etapak batetik besterako tartea astebetekoa izango da. Eguneroko jardunean, ordea, eginkizun horretan emango den denbora irakasleek izango duten denboraren baitan dago. Nolanahi ere, aipatu tartekak bi astetik beherakoak izango dira, beti.

Sharp-ek eta Smith-ek (1994) esandakoari jarraituz, kontuan hartu beharreko hasierako alderdi batzuk aipatuko ditugu:

Aldez aurretiko ezarpen-baldintzak

...informazioari buruzkoak:

- Elkarrizketei heldu aurretik, bullying-gertakariari buruzko albat informazio gehien biltzea komeni da. Gelako tutorearekin eta/edo bullyingaren berri izan edo halako egoerarik ikusi duten beste pertsona helduekin hitz egitea ezinbestekoa da.
- Erasotzaileei eta berauek babesten dituen taldeari buruzko albat informazio gehien lortzea komeni da: nor den liderra eta nortzuk jarraitzaileak, biktima nolakoa den, oldarkorra den ala ez.

...lokalaria buruzkoak:

- Elkarrizketak gela batean egingo dira, inolako etenik gabe.
- Eserlekuen antolamendua eta kokapena zaindu behar dira; altura berdineko aulkiak aukeratu ditugu. Gelan leihorik baldin badago eta horretatik ikaslearen arreta bereganatu dezaketen pertsonak ikus badaitezke, ez eseri ikaslea haiei begira.

...metodoa aurrera eramango duen irakasleei buruzkoak:

- Metodo honen arrakasta elkarrizketez arduratuko den irakasleak proposatutako gidoia jarraitzearen edo ez jarraitzearen baitan dago.
- Irakasleak ez ditu erasotzaileak epaituko eta haien aurrean jarrera neutrala erakutsiko du. Ikaslearen aurrean bere burua haserre edo amorratuta sumatzen badu, ez da esku-hartzea garatzeko pertsona egokia.
- Esku-hartzeko hiru etapetan parte hartuko duen irakaslea berbera izango da.
- Pikasen Metodoaren gidoia erabiltzeko, prestakuntza beharrezkoa dela azpimarratu beharra dago. Zenbaitetan, irakasleek ez dituzte isiluneak pairatzen, eta galdea asko egiten dituzte. Ez da hala izan behar. Metodoak funtzionatu badu, erabiltzaileak gidoian jasotakoa bete beharko du.

...koordinazioari buruzkoak:

- Lehenik, erasotzaileak elkarrizketatuko ditugu, banan-banan, eta ondoren biktima.
- Ikasleak elkarrizketara deituzkoan, elkarrizketak egingo dituzten irakasleen eta irakasle-tutorearen eta menpeko langileen arteko koordinazioa egon behar da.
- Elkarrizketa egiterakoan, gelan ordu horretan egongo den irakaslearen baimenarekin, erasotzaile bakoitza aldez aurretiko inolako abisurik gabe deitua izango da, eta atezainak lagunduko du metodoa gauzatzeko duen irakaslearekin elkarrizketa izateko.

- Lehenengo elkarrizketak jarraian egin behar dira eta, ahal izanez gero, eskola-ordu bakar batean. Talde handiak direnean, behar beste denbora hartzea komeni izaten da (bi eskola-ordu jarraian).

- Lehenengo elkarrizketa txanda hau bukatu aurretik erasotzaileen taldeko kideek elkarrekin hitz egin ahal izatea saihestu beharra dago.

1. etapa: Lehenengo elkarrizketa Ikasle erasotzaileekin garatuko dugun gidoia:

- Lehenengo saioari heldu aurretik terapeuta edo irakaslea lasai egotea garrantzi handikoa da. Erasotzailea sartu denean, begiratu begietara eta esan esertzeko. Ondoren, terapeuta edo irakaslea gidoi honi jarraituko zaio:

Ondoren terapeutak edo irakasleak honako guioia jarraitu behar du:

1. «Zurekin hitz egin nahi dut... (biktimaren izena) arazoak dituela entzun dudalako». Beste aukera bat honako hau izan daiteke: «Zurekin hitz egin nahi dut... (biktimaren izena) –(r)en aurka aritu zarela entzun dudalako».
2. «Zer dakizu aipatu dizudan horretaz?»
3. «Ondo dago. Nahikoa hitz egin dugu horretaz guztiaz».
4. «Zer egin dezakegu? Zein da zure iradokizuna? Zure iritziz, zer egin dezakezu... –(r)i laguntzeko?»
5. «Hori ondo dago. Astebete barru berriro egongo gara elkarrekin. Orduan esango didazu nola moldatu zaren».

Elkarrizketa hau soluzioetara iristeko baliagarria izan behar da, egoera hobetzeko. Erasotzaileek beraiek, banan-banan, beren soluzioak ematea lortu nahi da, eta, askotan, halaxe gertatzen da. Lehenengo elkarrizketa hauen emaitza ikasleek beren jarrera nola alda dezaketen iradokitzea da.

Elkarrizketa bakoitzean soluzio desberdina lortuko dugu, esate baterako:

- ... "atsedenaldietan gure jolasetan sartu (biktima)"
- ... "besteei, (biktima) iraintzen dutenean, halakorik ez egiteko esan"
- ... "beste lagun batzuekin elkartu eta biktima bakean utzi"
- ... "klaseren batean biktimarekin batera lan egin"
- ... "eskolatik aterata, (biktima) etxera lagundu"
- ... "hura (biktima) bakean utziko dut"
- ... "hura (biktima) defendatuko dut"
- ... "haren (biktimaren) laguna izango naiz".

- Neska-mutilek egindako iradokizun horiek hurrengo asteetan egingo diren elkarrizketetan berraztertuko

dira. Lehen Hezkuntzako adinean daudenean, askotan ez dute egoera hobetzeko modurik topatzen. Bideratzaile lana areagotzea eska dezake egoera horrek.

- Elkarrizketa bukatuta, atezainak erasotzailea gelaraino lagunduko du eta beste bati dei egingo dio berarekin joan dadin. Erasotzaileak beti joango dira norbaitekin eta kontu handiz ibiliko gara haien arteko inolako komunikaziorik egon ez dadin, ez gelan ezta gelatik kanpo ere.
- Gidoi hau neska-mutil bakoitzarekin errepikatuko dugu txandaka.

Zailtasunak

Batzuetan egoerak ez dira gertatzen guk nahi bezala, eta gidoiaren aldaketak izaten dira. Zenbaitetan neska-mutilek ez dute hitz egin nahi izaten, edo negoziatu nahi izaten dute, edo bere laguntza inolaz ere eskaini nahi ez duenik ere izaten da. Elkarrizketa bide onetik ez doala antzematen badugu, eten eta besterik gabe hauxe esango dugu: "Ados. Gaurkoz bere horretan utziko dugu. Hurrengo... ikusiko dugu elkar". Nolanahi ere, oro har, haien laguntza jasoko dugu, baina, hartarako, elkarrizketa egingo duenak ez die neska-mutilei akusaziorik egingo eta gidoiaren jasotakoari lotuko zaio.

Aldaketak

- Ikasleak ez du lagundu nahi: isiltasuna gorde hark hitz egin arte. Minutu batzuk igarota ezer esan ez badu, besterik gabe honako hau esan dezakezu: "Badirudi gaur ez duzula hitz egiteko gogorik. Hobe izango duzu klasera joan". Orduan, batzuetan, hizketan hasten dira.
- Ez zaie soluziorik bururatzeko. Pentsatzeko astia eman behar zaie. Ez beldurrik izan isiluneei. Benetan soluziorik emateko gaitasunik ez badute, iradokizun bat eskain dakieke, baina, betiere, ikaslearen baime-narekin. "Zerbait bururatu zait, jakin nahi al duzu zer den?"
- Ikasleak eskaini duen soluzioa ezinezkoa edo zentzugabekoa baldin bada, ez atzera bota negatiboki. Galdetu: "hori gertatuko balitz, jazarpena amaituko litzateke?"
- Proposatutako duen soluzioa beste pertsona baten baitan baldin badago, ez da negoziatu behar. "Zuk zeure kabuz egin dezakezun zerbait eskatu dizut nik" esan behar zaio.
- "Nik horretan ez dut zerikusirik". Jazarpenean parte hartzen duenik ukatzen badu, atzera egingo dugu, eta, pausatuki, eraso gertatzen ari den testuinguru sozialari buruz hitz egingo dugu eta biktimaren egoerara hurbilduko gara. Parte-hartzeari buruzko onarpenik txikiena egiten badu, erabakitako gidoiari helduko diogu berriro ere.
- "Berak (biktimak) eginga zidan niri hori lehenagotik". Bullying-portaera justifikatu nahian, biktimaren jarre-

ra probokatzailea behin eta berriro aipatzen dutenean, haien iritziz, biktima, nolabait ere, "horren bila dabil". Erasotzailearen biktimarekiko haserrea, amorrua edo etsipena ez da errefusatu behar. Erasotzailearen sentimenduak onartu behar dira, baina, hala ere, biktima eskolan une txarra igarotzen ari dela esan behar zaio.

1. ETAPA: Lehenengo elkarrizketa. Biktimekin garatuko dugun gidoia.

- Pikasek biktima pasiboa eta biktima probokatzailea bereizten ditu.

Biktima pasiboa denean:

Elkarrizketa egingo duenaren eginkizuna biktima animatzea, eta hari bere sostengua eta aholkua ematea da. Lehenengo eta behin, biktimak bere egonezina eta zer gertatzen zaion adieraz dezan saiatuko gara.

Biktima askok gustura hitz egiten dute beren egoeraz. Beharbada, horixe izango da horretaz hitz egiten duten lehenengo aldia. Ondoren, ikasleari berak ere bere egoera hobetzeko gauza asko egin ditzakeela jakinaraziko diogu, eraso saihets dezaketen zenbait jarrera pertsonal alde batera utzita. Komeni izaten da elkarrizketa hauei asertibitate portaerak lantzeko saioak gehitzea.

Biktima probokatzailea denean:

Bere portaera ere aldatu behar duela kontzientziazten saiatuz lagunduko diogu. Elkarrizketa egingo duenak biktimaren konfiantza bereganatzeko, guztien gogoko izateko bide okerretik jo duela ikusarazteko eta hori lortzeko modu onargarriagoak badaudela adierazteko adinako nortasun sendoa eduki behar du. Kontuan hartu biktima probokatzaileak, maiz, talde erasotzaileko partaide bihurtu nahi izaten duela.

2. ETAPA: Jarraipeneko elkarrizketak

Hurrengo topaketak ikasle bakoitzak lehenengo topaketan hartutako erabakiak onartzen dituenegonean egiten da. Banakako topaketak dira, baina lehenengoak baino laburragoak. Astebete geroago egingo dira eta lehenengoan izan ziren ordena eta forma berarekin.

Nolanahi ere, ikasleek ez dute beti betetzen esaten duten hori. Bullyingak aurrera segitzen badu, banakako lanarekin jarraituko dugu egoerari soluzio bat ematea onartzen duten arte.

Egoerak hobera egin badu, bullying-egoera horretan tartean egon diren guztiekin bilera bateratua egingo dugu, betiere biktima horretarako prest baldin badago.

3. ETAPA: Talde-topaketa

Etapa hau ezinbestekoa izango da beti, baina, bereziki, biktima probokatzailea denean. Topaketa horrek aurrerantzean bullyingarekiko jarrera aldaketa denboran bere

horretan irauarazteko balioa izan behar du, batez ere biktima probokatzaileraren denean.

- Lehenengo eta behin, bilera bat egingo dugu talde erasotzailearekin. Aste horretan biktimarekin zerranolako jarrera egon den galdetuko diegu. Esan beharreko guztia entzungo diegu zailtasunak ager ditzaten. Ondoren egin daitekeenaz galdegingo diegu. Bullyingari soluzioa emango bazaio, arazoa gainduta dagoela onartu beharko dute, eta, beraz, hori egiaztatzeko biktimarekin elkartu beharra dago. Bilera horretan biktimaren alderdi positiboak agertzea eta talde erasotzailearen jarrera aldaketa ageriko izatea ezinbestekoa izango da.
- Erasotzaileei biktimarekin bilera egin behar dela esango diegu. Terapeuta edo irakasleak plan bat proposatuko du. Ondoren biktimari dei egingo diogu. Taldearen erditik pasa beharra izan ez dezan, bere aukira zuzenean joan ahal izateko aukera eman behar diogu. Hoberena irakaslearen alboan esertzea izango da.
- Erasotzaileetako bakoitzak, txandaka, biktimari buruz duen benetako iritzia adieraziko du. Biktimak oraingoz entzun besterik ez du egingo.
- Segidan irakasleak parte hartuko du, eta biktimari esatekorik zer duen galdetuko dio (positiboa baldin bada, baliteke amaiera egokia izatea).
- Ondoren parte-hartzaileetako bakoitzak bere zailtasunak eta gaitzespenak adierazteko askatasuna izango du. Halakorik egiten badute, horrek prozesua luzatuko du.

- Irakaslearen eginkizuna komunikazioa erraztea, soluzio positiboak ematea eta hizketa-txandak moderatzea da.

Egoerak hobera egin izana txalotuko dugu, eta, halaber, aldaketa horrek irau dezan zer egingo dugun aipatuko dugu.

- Bi aldeek azken adiskidetzea lortuta, honako galdera hau egingo diegu: "Zer egingo dugu norbaitek emandako hitza betetzen ez badu?". Maiz, taldeak berak proposatzen du gaitzestea edo zigorra ezartzea. Irakasleak besteen hutsegiteez jabetzera eta horiek kontrolatzera bultzatuko ditugu. Orobat, bullyingak aurrera eginez gero, bestelako neurriak hartu beharoko liratekeela ikusarazi behar diegu; honenbestez, argi eta garbi geratu behar da inork ez duela egoera horretara iritsi nahi. Portaera horiek aztertzeke eta lehenera ez iristeko, plan bat iradoki dezakegu.
- Bukatzeko, hainbat ideia azpimarratuko ditugu: adiskideak izateko inolako obligaziorik gabe tolerantetza izaten, besteen akatsak onartzen eta elkarrekin bizitzeko ikasi beharra daukagu.
- Gogoan hartu jarrera eta portaera aldaketak oso motelak izaten direla. Bestalde, elkarrizketetarako arduratuko den pertsona terapeuta, orientatzailea edo teknika hauetan ondo trebatuta egongo den irakaslea izan behar da, taldeak onartzen duena. Halaber, taldearen gainontzeko irakasleekin koordinatuta egon behar da. Irakasleek emaitza hobek lortzen eta ikastetxearen hezkuntza-proiektua garatzen lagunduko dute, curriculum-lanarekin ideia hauek bultzatuz.